

Elecciones mayo 2011

2011ko maiatzaren 22a

***Hauteskunde-Mahaietako
Kideen Eskuliburua***

2011ko maiatzeko

HAUTESKUNDEAK

Hauteskunde Mahaietako Kideen Eskuliburua

Hauteskunde-Batzorde Zentralak gainbegiratua

Ministro Kontseiluaren Akordioaren bidez onartua

www.infoelectoral.mir.es

Aurkibidea

Sarrera	3
----------------------	---

Hauteskunde mahaiko kideen egitekoak hauteskunde-egunean - kronologikoki -	4
---	---

Goizeko 08:00etatik 09:00ak bitartean

Goizeko 08:00etan

Hauteslekuan bildu	4
Hauteskunde-materiala egiaztatu	5
Hauteslekua ondo dagoela egiaztatu	10
Ikuskatzaileek aurkeztutako izendapen-agiriak jaso	11

Goizeko 08:30etan

Mahaiaren eratze-akta egin	12
----------------------------------	----

Goizeko 09:00etatik arratsaldeko 08:00ak arte bozketa

Hasi da bozketa	13
Bozketaren nondik norakoa	14

Arratseko 08:00etatik aurrera bozketaren amaiera eta botoen zenbaketa

Aurrera bozketaren amaiera.....	19
Mahaikideek eta ikuskatzaileek emango dute botoa.....	20
Mahaikideek eta ikuskatzaileek emaitzen zerrenda zenbakiduna sinatuko dute	20
Botoak zenbatuko dira.....	20
Bozketaren emaitzaren berri eman	22
Boto-zenbaketaren akta egin	23
Bilkura-akta egin.....	24

Mahaiaren eginkizunen amaiera

Gauteskundeetako agiriak hiru gutun-azaletan banatuko dira.....	25
Gutun-azalak itxi eta sinatu egingo dira	26
Gutun-azalak aurkeztu egingo dira	26

Hautagai-zerrendetako ikuskatzaileak eta ahalordeduna ...	28
--	----

Ordena publikoa	29
------------------------------	----

SARRERA

Mahaiko kide izendatu zaituzte. Zuen lagungarri, eskuliburu hau prestatu da izendapenak ekarri dizkizun eginkizunak zuzen bete ditzazun. Irakur ezazu arretaz eta, ahal dela, hauteskunde-eguna baino lehenago, behar den denbora hartuta.

Hauteskunde-mahaiko kidea izatea herritarren betebeharrak utziezina da. Hauteskunde-mahaia osatzeko 500.000 pertsona baino gehiago behar dira (kide titular eta ordezkoren artean). Hauteskuendak ezin izanen lirateke egin pertsona horiek guztiak ahalegina egiteko prest ez baleude.

2011ko maiatzaren 22an udal hauteskuendak, Nafarroako kontzejutarako hauteskuendak eta Nafarroako Parlamenturako hauteskuendak eginen dira.

NOLA IZENDATZEN DIRA HAUTESKUNDE MAHAIAK KIDEAK?

Udalek hautatzen dituzte, zozketa publikoaren bidez, irakurtzen eta idazten dakiten hirurogeita hamar urtetik beherako pertsona guztien artean.

Mahai bakoitzean, nahitaez, hiru pertsonak egon behar dute: mahaiburua bat eta bi mahaikide; haietako bakoitzak bi ordezkari izan behar ditu.

ZEIN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK DITUZTE HAUTESKUNDE MAHAIAK KIDEAK?

Mahaietan egoteko izendatzen dituzten kideak, hauteskunde-egunean eginkizun horietan aritzen badira, eskubide hauek dituzte:

- 62,61 euroko dieta.
- Ordaindutako baimena bozketaren egunean, laneguna bada, eta bost orduko murrizketa hauteskunde-egunaren biharamuneko lanaldian, besteren konturako langileen eta funtzionarioen kasuan.
- Gizarte Segurantzako Sistemaren babesa, hauteskundeetan parte hartzeagatik etor litezkeen gertakizun eta egoerentzako. Babes hori erabili behar baduzu, jo ezazu Gobernuaren Ordezkaritzara/Ordezkariordeztzara.

Kargu hauek nahitaez bete behar dira; hortaz, mahaiko kide izendatzen dituzten herritarrek hauteskunde-egunean beren eginbeharra betetzera ez agertzea hauteskunde-delitua da.

MAHAIKO KIDEEN EGINKIZUNAK HAUTESKUNDE-EGUNEAN – KRONOLOGIKOKI EMANAK –

GOIZEKO 8etatik 9etara



GOIZEKO 8etan

Hauteslekuan bildu, hauteskundeetako materiala eta hauteslekua ongi daudela egiaztatu eta ikuskatzaileei beren kargua ematea.

1. HAUTESLEKUAN BILTzea

Bozketa egunean, goizeko 8etan hauteslekuan egon behar dute mahaiko kide guztiak eta beren ordezkoeak. Azken horiek, behin mahaia eratuz gero, titularrik ordezkatu behar ez badute, inolako obligaziorik gabe geldituko dira eta hautesle-kutik joan daitezke.

Mahaiburu titularra agertzen ez bada, eta haren ordezkoeak ere ez badaude, lehenbiziko edo bigarren mahaikideak bere gain hartu beharko du mahaiburutzak; mahaikide horren lekua bere ordezkoeak beteko dute.

Aipatutako horren guztiaren ondoren, oraindik ere mahaia ezin bada eratu, legeak eskatzen dituen hiru kideak ez daudelako (mahaiburua eta bi mahaikide), honela egingen da:

- 1º Bertan dauden mahaiko kideek edo, bestela, Gobernuko agintaritzak, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinarazi beharko diote gertatu dena eta, gainera, zer pasatu den idazki batean azaldu eta posta ziurtatuaren bidez bidali beharko dute.
- 2º Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak mahaia nork osatu behar duten erabakiko du; horretarako, hauteslekuan dauden hautesleei agintzen ahalko die mahaian parte hartzeko.

Hala ere, esandako guztia egin eta gero, ezin bada mahaia goizeko 10ak baino lehen eratu, bertan dauden kideek edo gobernu-agintariak Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari horren berri eman beharko diote, eta Batzordeak beste bozketa baterako deia egingo du hurrengo bi egunen barranean. Deia hauteslekuko atean paratuko da, eta Hauteskunde Batzordeak beste kide batzuk izendatuko ditu.

Gogoan hartu: gorabehera hori edo antzeko beste zernahi gertatuz gero, mahaiko kideek Administrazioaren ordezkariari eskatzen ahalko diote laguntza, hauteslekuan bertan egonen baita goizean goizetik.

2. HAUTESKUNDEETAKO MATERIALA ONGI DAGOELA EGIAZTATZEA

Jarraian aipatzen diren elementu hauetakoren bat falta dela edo akastuna dela ikusten baduzu, berehala jakinarazi behar diozu Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, hura ekarri edo ordeztu dezaten.

2.1. HIRU HAUTESKUNDEETAKO BAKOITZERAKO HAUTESTONTZI BAT:

- Hautestontzi bat udal hauteskundeetarako.
- Hautestontzi bat Nafarroako kontzejuetarako hauteskundeetarako (Nafarroako kontzejuetarako hauteskundeak egiten diren tokian, mahaian sartzen diren kontzejuak adina hautestontzi).
- Hautestontzi bat Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetarako.

Hautestontziak nolabait markatu edo identifikatu behar dira, okerrik edo nahasbi-derik izan ez dadin; horretarako, haien aurrealdean eta atzealdean bozketarako gutun-azal bana itsatsiko da, hautestontzi bakoitzean dagozkion gutun-azalak.

Hautestontziek itxita eta zigilaturik egon behar dute, inork deus aldatu ezin izan dezan ziurtatzeko. Horregatik, zigilua hautsi edo hondatuz gero, mahaiburua ahal duen moduan ziurtatu beharko du itxiera, baldin eta ezin badiote garaiz beste hautestontzi bat ekarri Eskualdeko Hauteskunde Batzordetik.

2.2. BOZKETARAKO KABINA BAT

Bozketa egiten den gelan bertan egon beharko du, sarreraren eta hauteskunde-mahaiaren artean.

2.3. GUTUN-AZALAK ETA BOTO-TXARTELAK

Egun osoan, eta bozketak irauten duen bitartean, hauteskunde bakoitzera aurkeztu diren hautagai-zerrenda guzti-guztien gutun-azal eta boto-txartel nahiko egon behar dute.

Hautagai-zerrenda guztien boto-txartelak jarri beharko dira kabinan edo haren ondoan paratuko den mahai batean.

Hona hemen hauteskunde bakoitzeko boto-txartel eta gutun-azalen kolorea:

- Udal hauteskundeak: **zuria**.
- Nafarroako kontzejuetarako hauteskundeak: **urdin argia**.
- Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak: **sepia**.

2.4. HAUTESKUNDEETAKO DOKUMENTAZIOA

MAHAIARI DAGOZKION HAUTESLEEN ERROLDAKO ZERRENDAK

Mahai bakoitzean:

→ Espainiako hautesle-errolako zerrendaren bi ale ziurtatu.

Udal hauteskundeetan eta Nafarroako kontzejuetarakoetan botoa emateko eskubidea dute, baita ere, Europar Batasuneko herritarrek, eta Espainiarekin elkarrekotasun hitzarmena sinatua duten herrialdeetakoek; beraz, baliteke zure mahaian Europar Batasuneko eta atzerriko hautesle-errolako zerrendaren bi ale ziurtatu ere izatea.

Zerrenda bakoitzaren ale bat gelaren sarreran jarriko da, hautesleek ikusteko moduan.

Zerrenda bakoitzaren bigarren alea mahaikoen esku geldituko da, mahaiko ki-deek boto-emailea erroldan ageri den egiazta dezaten. Eguna amaitzean, bigarren ale hori nahitaez sartuko da mahaiaik prestatu behar duen hauteskunde-dokumentazioarekin batera.

AKTAK (eraketa, boto-zenbaketa eta bilkura)

Ondorengo akta hauen inprimakiek mahaian egon behar dute:

♦ **Mahaiaren eraketa-akta (ikus eredua 12 orrialdean)**

Hauteskunde-mahaia bakarra da, nahiz eta hauteskunde bat baino gehiago egin.

Horregatik, mahaia eratu dela adierazteko agiri bat besterik ez dago hauteskunde guztietarako.

BOZKATU IZANAREN ZIURTAGIRIAK, halakoak eskatzen dituzten boto-emai-leei emateko.

ELECCIONES / HAUTESKUNDEAK

E/Le Electora / En/Le Errorele
 en/te su voto en las Elecciones / hauteskuntzetan.
 En / a de de E/Le Presidente / Lehendakaria
 (E/Le) (E/Le) (E/Le) (E/Le)

E/Le Electora / En/Le Errorele
 comparado en esta Mesa Electoral para emitir su voto a las Elecciones / sin que pudiese serle aceptado por haber/te hauteskuntzetan/mentan horretara etortu da botoa emateko / hauteskuntzetan, baina ezin izan zaito onartu arazot honengatik:
 (*) no figurar inscrito en el Censo / ez da ageri Errorele/tean inskribatuta
 no justificar suficientemente su identidad / ez du behar bezala justifikatu bere nortasuna
 suspensión de la votación / botatzea bertan behere geratu da
 no constitución de la Mesa / mahaiak ez da eratu

En / a de de E/Le Presidente / Lehendakaria
 (E/Le) (E/Le) (E/Le) (E/Le)

(*) Señales con una cruz (x) que proceda / Adierazi geratu behar dituzten
 (*) 3 Certificado de votación / Bozkatu izanaren ziurtagiria

BOZKATU IZANAREN ZIURTAGIAREN EREDUA

MAHAIAN LAN EGITEN DUTEN IKUSKATZAILEENTZAKO IZENDAPEN-AGIRIEN KOPIA (ikuskatzaile eta ahalordedunei buruz jakiteko, ikus 28 orrialdea)

Hautagai-zerrenden ordezkariak pertsona jakin bat beren hautagai-zerrendako ikuskatzaile izendatzen dute, berariazko “izendapen-agiri” baten bidez. Izendapen-agiriaren kopiak mahaiaik eguna amaitzean prestatu behar duen 1. gutun-azalean sartuko dira.

ELECIONES MAYO 2011/2011ko MAIATZTEKO				ELECIONES MAYO 2011/2011ko MAIATZTEKO			
JUNTA ELECTORAL ZONA DE ESKUALDEKO HAUTESKUNDE: BATZORDEA:				JUNTA ELECTORAL ZONA DE ESKUALDEKO HAUTESKUNDE: BATZORDEA:			
Asunt / Gaiak CREDENCIAL NOMBRAMIENTO INTERVENTORIA IKUSKATZAILEAREN IZENDAPEN-AGIRIA				Asunt / Gaiak CREDENCIAL NOMBRAMIENTO INTERVENTORIA IKUSKATZAILEAREN IZENDAPEN-AGIRIA			
DATOS DE LA PERSONA PROPUESTA / PROPOSATUTAKO PERTSONAREN DATUAK				DATOS DE LA PERSONA PROPUESTA / PROPOSATUTAKO PERTSONAREN DATUAK			
1º Apellido / 1. abizena		2º Apellido / 2. abizena		1º Apellido / 1. abizena		2º Apellido / 2. abizena	
Nombre / Izena		Nº D.N.I./ NAN ZK.		Nombre / Izena		Nº D.N.I./ NAN ZK.	
Profesión / Lanbidea		Edad / Adina		Profesión / Lanbidea		Edad / Adina	
Domicilio / Helbidea		Num. / Zk.		Domicilio / Helbidea		Num. / Zk.	
Municipio / Udalerria		C.P. / P.K.		Municipio / Udalerria		C.P. / P.K.	
Provincia / Probintzia		Provincia / Probintzia		Provincia / Probintzia		Provincia / Probintzia	
Inscrita en el censo en la circunscripción de Haueste-erroldan zein barrutian dagoen izena emanda: Distrito censal Errorele-barrutia Sección y Mesa Atala eta Mahaia				Inscrita en el censo en la circunscripción de Haueste-erroldan zein barrutian dagoen izena emanda: Distrito censal Errorele-barrutia Sección y Mesa Atala eta Mahaia			
DATOS DEL/DE LA REPRESENTANTE / ORDEZKARIAREN DATUAK				DATOS DEL/DE LA REPRESENTANTE / ORDEZKARIAREN DATUAK			
1r Apellido / 1. abizena		2º Apellido / 2. abizena		1r Apellido / 1. abizena		2º Apellido / 2. abizena	
Nombre / Izena		Nº D.N.I./ NAN ZK.		Nombre / Izena		Nº D.N.I./ NAN ZK.	
Profesión / Lanbidea		Edad / Adina		Profesión / Lanbidea		Edad / Adina	
Domicilio / Helbidea		Num. / Zk.		Domicilio / Helbidea		Num. / Zk.	
Municipio / Udalerria		C.P. / P.K.		Municipio / Udalerria		C.P. / P.K.	
Provincia / Probintzia		Provincia / Probintzia		Provincia / Probintzia		Provincia / Probintzia	
Formación Política / Alderdi politikoa: Para las elecciones / Hauteskuntzetan:				Formación Política / Alderdi politikoa: Para las Elecciones / Hauteskuntzetan:			
De acuerdo con el artículo 78.1 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General y, a los efectos de lo indicado en ella, nombro a la persona arriba indicada interventoría en: Hauteskuntze Arabadie Ondoriolelako, goian adierazitako pertsona ikuskatzaile izendatzen dut hemen:				De acuerdo con el artículo 78.1 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General y, a los efectos de lo indicado en ella, nombro a la persona arriba indicada interventoría en: Hauteskuntze Arabadie Ondoriolelako, goian adierazitako pertsona ikuskatzaile izendatzen dut hemen:			
Mesa/Mahaia		Sección / Atala		Mesa/Mahaia		Sección / Atala	
Municipio / Udalerria		Provincia/Probintzia		Municipio / Udalerria		Provincia/Probintzia	
Lugar y fecha / Tokia eta eguna				Lugar y fecha / Tokia eta eguna			
E/LE REPRESENTANTE / ORDEZKARIA				E/LE REPRESENTANTE / ORDEZKARIA			

N.º 3a -Nombramiento de interventores - Matiz / N.º 3a - Ikuskatzailearen izendapena - Matiz

Sr./e. D/Dª / jaun/a/andrea
N.º 3a -Nombramiento de interventores - Credencial / N.º 3a - Ikuskatzailearen izendapena - Irizpizko gairia

IZENDAPEN-AGIAREN EREDUA

MAHAIKO HAUTESLEEN ZERRENDAN EGONIK BESTE MAHAIA BATEAN IKUSKATZAILA GISA ARI BEHAR DUTEN HAUTESLEEN IZENDAPEN-AGIRIEN KOPIA , halakorik baldin bada.

Ikuskatzailea mahaiari dagokion hauteskunde-barruti berean inskribaturik bada, go, zein mahaitarako baimena duten, hartan eman beharko dute botoa.

Artekaria ez bada go mahaiari dagokion hauteskunde-barruti berean inskribaturik, ezin izanen du zuzenean botoa eman, ez mahai honetan, ezta inskribaturik da goen hartan ere; beraz, botoa aurretik posta bidez emana beharko du.

GUTUN-AZAL SORTA BAT ETA HAIEK EMAN IZANAREN AGIRIAK.

Hiru hauteskundeetako bakoitzerako hiru gutun-azaleko sorta bat izanen da, haiek eman izanaren agiriekien batera.

ELECCIONES HAUTESKUNDEAK				
Circunscripción electoral Hauteskunde-barrutia	Municipio Ludierria	Districto censal Errotole-barrutia	Sección Aldea	Mesa Mahaila
Nota: Copia con una raya el modelo de hecho que se está llenando.				
A las _____ horas del día de la fecha, he recibido de la Mesa Electoral antes resultada los nombres completos en copia autorizada de los componentes de dicha Mesa electoral que componen: _____ según el artículo 104 del Reglamento Electoral de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General.				
Sobre Nº 1 de las elecciones _____ hauteskuntza _____				
1. gozularia _____ hauteskuntza _____				
<ul style="list-style-type: none"> - Copia del Acta de constitución de la Mesa Electoral antes resultada. - Copia del Acta de Sesión. - Lista numerada de votantes / Zer-emaitze zerrenda zenbaitzua. - Hojas de control electoral / Errotole kontrol-zerrendak. - Hojas de control de los votos / Errotole kontrol-zerrendak. - Lista de Cuentas electrónicas / Errotole zerrenda errotole-zerrendak. - Certificaciones de los interelectores / Aukaririkiko errotole-zerrendak eta epaia. - Copia de los interelectores de los interelectores / Hauteskuntzean parte-hartze-agiriaren kopia. 				
Sobre Nº 2 de las elecciones _____ hauteskuntza _____				
2. gozularia _____ hauteskuntza _____				
<ul style="list-style-type: none"> - Copia del Acta de constitución de la Mesa Electoral antes resultada. - Copia del Acta de Sesión. - Lista numerada de votantes / Zer-emaitze zerrenda zenbaitzua. - Hojas de control electoral / Errotole kontrol-zerrendak. - Hojas de control de los votos / Errotole kontrol-zerrendak. - Lista de Cuentas electrónicas / Errotole zerrenda errotole-zerrendak. - Certificaciones de los interelectores / Aukaririkiko errotole-zerrendak eta epaia. - Copia de los interelectores de los interelectores / Hauteskuntzean parte-hartze-agiriaren kopia. 				
Sobre Nº 3 de las elecciones _____ hauteskuntza _____				
3. gozularia _____ hauteskuntza _____				
<ul style="list-style-type: none"> - Copia del Acta de constitución de la Mesa Electoral antes resultada. - Copia del Acta de Sesión. - Lista numerada de votantes / Zer-emaitze zerrenda zenbaitzua. - Hojas de control electoral / Errotole kontrol-zerrendak. - Hojas de control de los votos / Errotole kontrol-zerrendak. - Lista de Cuentas electrónicas / Errotole zerrenda errotole-zerrendak. - Certificaciones de los interelectores / Aukaririkiko errotole-zerrendak eta epaia. - Copia de los interelectores de los interelectores / Hauteskuntzean parte-hartze-agiriaren kopia. 				
EL LAJUEZ ERREKLA Hecho en el lugar a las _____ y _____ p.m. de _____ de _____ de _____				
A las _____ horas del día de la fecha, he recibido de la Mesa Electoral antes resultada un sobre cerrado en cuyo exterior los componentes de dicha Mesa certificar que contiene: _____ según el artículo 104 del Reglamento Electoral de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General.				
Nota: Copia con una raya el modelo de hecho que se está llenando.				
Sobre Nº 1 de las elecciones _____ hauteskuntza _____				
1. gozularia _____ hauteskuntza _____				
<ul style="list-style-type: none"> - Copia del Acta de constitución de la Mesa Electoral antes resultada. - Copia del Acta de Sesión. - Lista numerada de votantes / Zer-emaitze zerrenda zenbaitzua. - Hojas de control electoral / Errotole kontrol-zerrendak. - Hojas de control de los votos / Errotole kontrol-zerrendak. - Lista de Cuentas electrónicas / Errotole zerrenda errotole-zerrendak. - Certificaciones de los interelectores / Aukaririkiko errotole-zerrendak eta epaia. - Copia de los interelectores de los interelectores / Hauteskuntzean parte-hartze-agiriaren kopia. 				
Sobre Nº 2 de las elecciones _____ hauteskuntza _____				
2. gozularia _____ hauteskuntza _____				
<ul style="list-style-type: none"> - Copia del Acta de constitución de la Mesa Electoral antes resultada. - Copia del Acta de Sesión. - Lista numerada de votantes / Zer-emaitze zerrenda zenbaitzua. - Hojas de control electoral / Errotole kontrol-zerrendak. - Hojas de control de los votos / Errotole kontrol-zerrendak. - Lista de Cuentas electrónicas / Errotole zerrenda errotole-zerrendak. - Certificaciones de los interelectores / Aukaririkiko errotole-zerrendak eta epaia. - Copia de los interelectores de los interelectores / Hauteskuntzean parte-hartze-agiriaren kopia. 				
Sobre Nº 3 de las elecciones _____ hauteskuntza _____				
3. gozularia _____ hauteskuntza _____				
<ul style="list-style-type: none"> - Copia del Acta de constitución de la Mesa Electoral antes resultada. - Copia del Acta de Sesión. - Lista numerada de votantes / Zer-emaitze zerrenda zenbaitzua. - Hojas de control electoral / Errotole kontrol-zerrendak. - Hojas de control de los votos / Errotole kontrol-zerrendak. - Lista de Cuentas electrónicas / Errotole zerrenda errotole-zerrendak. - Certificaciones de los interelectores / Aukaririkiko errotole-zerrendak eta epaia. - Copia de los interelectores de los interelectores / Hauteskuntzean parte-hartze-agiriaren kopia. 				
EL LA EMPLEADO DEL SERVIDO DE CORREOS POSTA-OSTATUARIAN Hecho en el lugar a las _____ y _____ p.m. de _____ de _____ de _____				
Nota: Copia con una raya el modelo de hecho que se está llenando.				

GUTUN-AZALAREN EREDUA

ELECCIONES HAUTESKUNDEAK					SOBRE Nº GUTUN-AZAL ZK	
Circunscripción Electoral Hauteskunde-barrutia	Municipio Ludierria	Districto Censal Errotole-barrutia	Sección Aldea	Mesa Mahaila		
Bila, Juez _____ de _____ de _____ epaile jaiaranduei						
Los Interventores: Hauteskuntza:						
La Presidencia, Vocales e Interventores en la referida Mesa Electoral, Hauteskunde-mahai honetako lehendakaria, mahaiakoa eta kuzkatzakoa. CERTIFICAN: ZUZENDUTZE DUTZE. Que está sobre contiene los siguientes documentos: / Gutun-azal honen barruan hurrengo agiri hauek daude:						
SOBRE 1 / 2 GUTUN-AZALAK - ORIGINAL DEL ACTA DE CONSTITUCIÓN DE LA MESA ELECTORAL HAUTESKUNDE-MAHAI ERATZETZE AKTAREN JATORRIZKO ALEA - ORIGINAL DEL ACTA DE SESIÓN, CON LOS DOCUMENTOS ELECTORALES A QUE SE HAGA REFERENCIA BILKURA-AKTAREN JATORRIZKO ALEA, APATZEN DIBEN HAUTESKUNDE-AGIRIAREN BATERA: <ul style="list-style-type: none"> - Lista numerada de votantes / Zer-emaitze zerrenda zenbaitzua. - Hojas de votación nulas o que hayan sido objeto de reclamación / Boto-erri balioak eta errotaletan bat jaso dutenak. - Lista del Centro electoral / Errotole zerrenda errotole-zerrendak. - Certificaciones de los interelectores / Aukaririkiko errotole-zerrendak eta epaia. - Copia de los credenciales de los interelectores u originales si no se reciben las copias / Ikuskatzaileen izendapen-agiriaren kopiak, edo jaiarriko aleak, kopiak jaso ez bada. 						
SOBRE 2 / 3 GUTUN-AZALAK - COPIA DEL ACTA DE CONSTITUCIÓN DE LA MESA ELECTORAL HAUTESKUNDE-MAHAI ERATZETZE AKTAREN BATERA - COPIA DEL ACTA DE LA SESIÓN BILKURA-AKTAREN KOPIA						
LA PRESIDENCIA / LEHENDAKARIA					VOCALÍAS / MAHAIKIDEAK	

GUTUN-AZALAK EMAN IZANAREN AGIRIAREN EREDUA

Gogoan hartu: mahaiari materiala falta dela ohartuz gero, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinarazi behar zaio berehala, behar dena bidal dezan.

IKUSTEKO DESGAITASUNA IZAN ETA BRAILLEA DAKITEN PERTSONEN BOZKETA NAFARROAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEETAN.

Ikusteko desgaitasuna duen pertsonaren batek botoa eman behar badu zure mahaian, eta alde zuretik erkidegoko Administrazioari bozketa prozedura berezia erabiltzeko asmoa jakinarazi badio, aipatutako dokumentazioaz gainera, zure mahaian honako hauek ere egon beharko dute:

- Mahai horretako hautesle-eroldako beste zerrenda bat, ikusteko desgaitasuna izan eta prozedura erabiltzeko eskaera egin duten hautesleen izenez osatua (NANarekin).

- Mahaiak zerrenda horretan dagoen boto-emaileari eman beharko dion berriazko dokumentazioa (dokumentazioa biltzen duen karpeta bat izanen da, zerrendan ageri diren hautesleetak bakoitzarentzat). Egiatzatu barrenean hauek badauden:

- Braillez idatzitako gida bat, dokumentazioa nola erabili behar den azaltzen duena.
- Bozketarako gutun-azal normalizatu bat (ez braillez idatzia).
- Gutun-azal handi bat, non sartuko baitira Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan parte hartzen duten hautagai-zerrenda guztien gutun-azalak. Zenbat hautagai-zerrenda, beste horrenbeste gutun-azal, eta bakoitzean dagokion izena tintaz eta braillez idatzita. Gutun-azal bakoitzaren barrenean, gutun-azalean jartzen duen hautagai-zerrendaren boto-txartel normalizatua egonen da.

Gogoan hartu: bozketa prozedura berezi hau ezin da ez udal hauteskundeetan ez Nafarroako kontzejuetarakoetan erabili. Horregatik, dokumentazioan Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetara aurkezten diren hautagai-zerrenden boto-txartelak egonen dira bakarrik.

3. HAUTESLEKUA ONGI DAGOELA EGIAZTATZEA

Bozketa egiteko behar diren baldintzak bete behar ditu. Hauteskunde-mahaiko kide guztientzat behar adina mahai eta aulkiz hornitua egon behar du, baita bulegoko materialez ere, eta argiak egokia izan behar du.

Atal eta mahaiei dagozkien seinaleek behar bezala jarriak egon beharko dute.

Akatsen bat badela ohartuz gero, berehala jakinarazi behar zaio Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, konponbidea jar dezan.

4. IKUSKATZAILEEK EKARRITAKO IZENDAPEN-AGIRIAK JASOTZEA.

Ikuskatzaile eta ahalordedunei buruz jakiteko, ikus 28 orrialdea.

- 8:00etatik 8:30era bitartean aurkezten diren ikuskatzaileen izendapen-agiriak jasoko ditu mahaiak.
- Izendapen-agiriak aurkeztu ahala, zenbaki bana emango zaie, zein hurrenkeratan aurkeztu diren jakiteko.
- Mahaiburuak izendapen-agiriak alderatuko ditu mahaiko dokumentazioan egon behar duten haien kopiekin, eta bat datozela egiaztatuko du. Horrela baldin bada:
 - Mahaiak onartu duela esanen zaio ikuskatzaileari.
 - Ikuskatzailearen izena mahaiaren eraketa-aktan jasoko da, dagokion atalean (mahaiak onarturiko ikuskatzaileen zerrenda).
 - Aurkeztu dituzten izendapen-agiriak itzuliko zaizkie, salbu kopiak jaso ez bada. Hori gertatzen bada, gorde egingen dira agiriak, hauteskundeetako espedientean sartzeko, eta hauteskunde-egunaren bukaeran 1. gutun-azalean sartuko dira.

Hautagai-zerrenda bakoitzeko, gehenez ere bi ikuskatzaile ari daitezke mahaiarekin. Hautagai-zerrenda batetik bi ikuskatzaile baino gehiago agertzen badira, izendapen-agiria lehenengo aurkeztu duten biei emanen zaie kargua.

Izendapen-agiri bat nahikoa da egun berean egiten diren hauteskunde guztietan ikuskatzaile gisara aritzeko, betiere ikuskatzaileak ordezkatzeko duen hautagai-zerrendak hauteskunde horietan parte hartzen badu.

AGER DAITEZKEEN ARAZOAK:

- ⇒ **Mahaiak izendapen-agirien kopiak ez jasotzea.**
- ⇒ **Muda egitea izendapen-agiriak egiazkoak ote diren.**
- ⇒ **Zalantza izatea ikuskatzaile gisara aurkezten diren pertsonen nortasunari buruz.**

Horrelakoetan mahaiburuak haxe egin behar du:

 - Ikuskatzaileei kargua ematea, hala exijitzen badute.
 - Gorabehera horiek mahaiaren eraketa-aktan jasotzea, gero argitu daitezen.
- ⇒ **Ikuskatzaileak 8:30 baino beranduago agertzea mahaian, eraketa-akta egin ondoren.**

Kasu horretan ez zaie emanen eskatzen duten kargua, baina mahaian botoa ematen ahalko dute.

GOIZEKO 9etatik ARRATSALDEKO 8etara BOZKETA



GOIZEKO 9etan.

mahaiburuak bozketaren hasiera iragarriko du, “**hasi da bozketa**” esanez.

Gogoan hartu: bozketarako behar diren elementuetakoren bat falta dela edo akastuna dela ohartuz gero (hautestontziak, kabina, gutun-azalak, boto-txartelak, dokumentazioa eta inprimakiak), berehala jakinarazi behar diozu Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, hura ekar dezaten.

Hauteskunde-egun osoan mahaian gutxienez bi kidek egon behar dute.

Mahaiburuak arduratu beharko du hauteslekuan ordenari dagozkion arauak bete-arazteaz, eskuliburu honen amaieran (“Ordена publikoa”) zehazten denaren arabera.

Kontuan hartu bozketa ETEN EDO BERTAN BEHERA UTZ daitekeela, betiere mahaiburuak erabaki horren erantzukizuna bere gain duela.

Bozketa **ETEN** egin behar da, mahaiak ikusten badu hautagai-zerrendaren bateko boto-txartelak falta direla eta ezin dituela ordeztu hautagai-zerrenda horretako ikuskatzaileek edo ahalordedunek emandako boto-txartelekin. Hala gertatuz gero, mahaiburuak Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari telefonoz jakinarazi beharko dio gertatutakoa, eta Batzordeak berehala boto-txartel gehiago ekarriko ditu. Gehienez ere ordubeteko etenaldia egiten ahal da; gero, etenda zenbat denbora egon den, beste horrenbeste luzatuko da bozketa.

Bozketa **BERTAN BEHERA UTZ** daiteke, etenaldiak ordubete baino gehiago irauten badu, edo beste zerbaitengatik bozketa ezin bada egin.

Bozketa bertan behera uztea erabaki aurretik, mahaiburuak mahaiko kide guztien iritzia entzun behar ditu, eta, ahal badu, telefonoz kontsultatu behar dio Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari.

Bozketa bertan behera uzteko erabakia idazki arrazoitu batean jasoko da. Mahaiburuak, erabaki hori hartu ondoren, ordura arte hautestontzietan sartu diren boto-txartel guztiak suntsitzeko aginduko du, eta berehala idazkiaren kopia bidaliko dio Probintziako Hauteskunde Batzordeari, eskura emanda edo posta ziurtatuaren bidez.

Mahai batean bozketa bertan behera utziz gero, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak mahai horretarako hauteskundeetarako deia egingen du berriz, hurrengo bi eguneko epean.

BOZKETA URRATSEZ URRATS

Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako hautesleek eta bozkatzeko eskubidea aitortzeko Espainiarekin elkarrekikotasun hitzarmena sinatua duten herrialdeetakoek botoa eman dezakete udal hauteskundeetan eta Nafarroako kontzejuetarakoetan; ez, ordea, autonomia erkidegoetako legebiltzarretarako hauteskundeetan.

Hautesleak banan-banan hurbilduko dira mahaira.

Nork bere izen-deiturak esanen dizkio mahaiburuari.

Mahaikideek eta ikuskatzaileek hauteslearen nortasuna egiaztatuko dute. Horretarako, hautesleak agiri hauetako bat aurkeztu behar du:

- **Nortasun Agiri Nazionala (NANA)**. Tramitatzen ari den NANaren frogagiriak ez du balio, titularraren argazkirik ez duelako.
- **Pasaporte**a (argazkiarekin)
- **Gidabaimena** (argazkiarekin).
- **Egoiliar-txartela**, txartel hori daukaten Europar Batasuneko herritarren kasuan.
- **Atzerritarren nortasun txartela**, udal hauteskundeetan eta Nafarroako kontzejuetarakoetan bozkatzeko eskubidea aitortzeko Espainiarekin elkarrekikotasun hitzarmena sinatua duten herrialdeetako kasuan.

Iraungita ere onartuko dira agiri horiek, baina jatorrizkoak izan behar dute, inola ere ez haren fotokopiak.

Nahiz eta agiri horietakoren bat erakutsi, hauteslearen nortasunari buruzko zalantzarik sortzen bada, mahaiak gehiengoz erabaki bat hartuko du, aurkeztu diren agiriak eta bertan dauden hautesleek ematen duten lekukotasuna kontuan hartuta.

Gorabehera horiek apuntatu egin behar dira dagokien bilkura-aktan.

Mahaikideek eta ikuskatzaileek boto-emailea hautesle-erroldako zerrendan dagoela egiaztatuko dute (zerrendak mahaiari emandako dokumentazioan egon behar du).

Erroldako zerrendan ez badago, kasu hauetan bakarrik ematen ahalko du botoa hautesleak:

A) Mahaian baimendutako ikuskatzaileetako bat baldin bada, eta betiere barruti horretan inskribatua badago.

B) Agiri haueetakoren bat aurkezten badu:

→ Mahaiko erroldan inskribatua egoteko duen eskubidea aitortzen dion epai judiziala.

→ **Erroldako ziurtagiri berezia**, Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzak emana, hautesleak boto-eskubidea erabiltzeko ahala ematen diona.

Erroldako ziurtagiri bereziaren bitartez herritarrak frogatu egin dezake indarrean dagoen hautesle-erroldan izena emanda dagoela, nahiz eta, hauteskunde-mahaiei banatzen zaizkien erroldako zerrendetan, bere daturik agertu ez edo okerreko datuak agertu .

Erroldako ziurtagiriak bi motatakoak izan daitezke:

- Erroldatze-ziurtagiriak: hautesle-erroldan inskribatuta egon arren mahaiari bidalitako zerrendan ageri ez diren herritarrei ematen zaizkie.
- Akats materialak zuzentzeko ziurtagiriak: mahaiari bidalitako erroldako zerrendan boto-emaielen datuak zuzentzeko ematen dira (izena edo deiturak, jaioteguna, etab.).

Formulario de certificación de inscripción en el censo electoral de alta. Incluye campos para el Delegado Provincial de Enlaces, datos personales del elector (nombre, DNI, fecha de nacimiento, sexo, estado civil), y una declaración de veracidad. El título es "ELECCIONES" y "Certificación censal específica DE ALTA".

Formulario de certificación de inscripción en el censo electoral de corrección de errores. Incluye campos para el Delegado Provincial de Enlaces, datos personales del elector (nombre, DNI, fecha de nacimiento, sexo, estado civil), y una declaración de veracidad. El título es "ELECCIONES" y "Certificación censal específica DE CORRECCIÓN DE ERRORES".

Jatorrizko ziurtagiria nahiz Udalaren bidez faxez jasotakoa, biek balioko dute.

Erroldako ziurtagiri bereziak eta epai judizialak kontuan hartu behar dira boto-emaileen zerrenda zenbakidunean, gero boto-zenbaketaren aktan eta bilkura-aktan behar bezala konputatzeko, eta mahaiaik gordeko ditu, eguna amaitzean prestatu behar duen hauteskunde-dokumentazioan sartzeko, eskuliburu honen beste atal batean zehazten denaren arabera.

Erroldako ziurtagiri bereziak **EZ DIRA NAHASI BEHAR:**

1. Hautesle Erroldaren Bulegoak hautesle guztiei informazio gisa bidaltzen dizkien ERROLDA-TXARTELEKIN; izan ere, horiek

- EZ DUTE BALIO hautesleak IDENTIFIKATZEKO.
- EZ DUTE BALIO hautesleak BOZKATU AHAL IZATEKO.

2. Botoa posta bidez emateko dokumentazioaren barrenean sartua dagoen ERROLDAKO INSKRIPZIO-ZIURTAGIRIAREKIN.

ANVERSO castellano

REVERSO castellano

(Clickeo y corte por la línea de puntos)

Tarjeta censal
Ereduaren mapa 2011

OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

El cumplimiento del artículo 33 de la Ley Orgánica 3/1985 del Régimen Electoral General, exige la entrega de esta tarjeta censal con los datos inscripciones de su inscripción en el censo electoral.

Esta tarjeta tiene un valor para su marca insurrección.

Se utilizan por favor, cualquier con cada 30 minutos de inscripción.

1	Rechazo
2	Desconocido
3	Se inscribió en el día de votación
4	Declaración de inscripción
5	Rechazo
6	Otros estados

Municipio: _____ Sección: _____ Mesa: _____
 Datos personales de su inscripción: _____ D.N.I.: _____
 Fecha de nacimiento: _____
 Delegación Provincial _____

ELECCIONES

OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

DELEGACIÓN PROVINCIAL DE

ASUNTO CERTIFICACIÓN	FECHA
-------------------------	-------

DATOS PERSONALES

1º APELLIDO	2º APELLIDO	
NOMBRE	IDENTIFICADOR	NACIONALIDAD (en su caso)
MUNICIPIO	COD. POSTAL	PROVINCIA

DATOS DE LA INSCRIPCIÓN CENSAL (en su caso)

DISTRITO	SECCIÓN	MESA	PROVINCIA
MUNICIPIO			

D./Dª

DELEGADO PROVINCIAL DE LA OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

CERTIFICA:
 Que esta electora cuyos datos y demás circunstancias personales anteceden, se encuentra inscrita en el CENSO en el distrito y sección que también se especifica.
 Y para que conste, en cumplimiento de lo determinado en los artículos 73 y 75 de la Ley Orgánica 5/1985 del Régimen Electoral General, expido la presente certificación, a los sitios electos de que se pueda emitir el sufragio.

EL/LA DELEGADO/A PROVINCIAL

Norbaitek botoa postaz emateko aukera eskatu badu, ezin du zuzenean mahaiari eman.

Botoa postaz emateko aukera eskatu dutenek (erroldako zerrendan haien izenen ondoan "C" letra agertuko da, edo "posta bidezko botoa eskatu duten mahaiko hautesleen zerrendan" egonen dira, erroldako zerrendaren eranskinean) EZIN DUTE mahaiari ZUZENEAN BOTOA EMAN.

Horietaz gainera, beste barruti batekoa den mahai batean baimendu dituzten ikuskatzaileek ere ezin dute mahaiari zuzenean botoa eman, mahaiko erroldan agertu arren (beste mahai horretan baimendu dituztela dioen agiriaren kopia bat izanen da hauteskunde-dokumentazioan). Posta bidez eman beharko dute botoa, inskribatuak dauden mahaiari.

Bozkatzeko gutun-azala, itxita, mahaiburuari eskura ematea. Boto-emaileak gutun-azala hauteskontzian sartzea.

Botoa ematea norberak egin beharreko ekintza da, beste inoren esku utzi ezin dena; beraz, inork ezin du beste hautesle bat ordezkatu. Norbaitek irakurtzen ez badaki, edo, desgaitasunen bat izateagatik, gai ez bada boto-txartela hautatzeko, gutun-azalean sartzeko edota mahaiburuari emateko, laguntza eskatzen ahal dio konfiantzako pertsona bati.

Gogoan hartu: gutun-azala hauteskontzian sartu aurretik boto-emailearen nortasuna eta erroldako inskripzioa egiaztatu behar dira.

Hautesleak mahaiburuari eman behar dio gutun-azala, eskura, itxita, eta mahaiburuak, gutun-azala denbora guztian agerian duela, ozenki irakurriko du boto-emailearen izena, eta gero, "botoa ematen du" esatearekin batera, gutun-azala boto-emaileari itzuliko dio, hark hauteskontzian sar dezan.

Boto-emaileak boto-emaileen zerrenda zenbakiduneari apuntatzea, bakoitzaren izen-deiturak idatzita, botoa eman duten ordenan.

Horretaz gainera, hautesle-erroldako zerrendan duten zenbakia jarriko zaie, edo, bestela, erroldako ziurtagiri berezia edo epai judiziala ekarri dutela idatziko da.

Hautesleek eskubidea dute boto-emaileen zerrenda zenbakiduneari beren izen-deiturak ongi idatzi diren begiratzeko.

Ez daude hauteskunde guztietan botoa ematera behartuak; haietakoren batean bakarrik eman dezakete botoa. Norbaitek botoa ematen badu hauteskundeetako batean, baina ez beste batean, ezin izanen du geroago beste horretan botoa eman. Kontu hori boto-emaileen zerrenda zenbakiduneari jaso behar da, "x" bat jarrita abstenitzen den hauteskudeari dagokion zutabearen.

IKUSTEKO DESGAITASUNA IZAN ETA BRAILLE SISTEMA EZAGUTZEN DUTEN PERTSONEN BOZKETA.

Baliteke zure mahaian Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan bozketa prozedura berezia erabiltzeko eskaera egin duten pertsonak izatea. Horrelakoetan, honela jokatu behar du mahaiaik:

1. Egiaztatuko du hauteslearen nortasuna eta ea sartua dagoen prozedura hori erabiltzeko asmoa adierazi dutenen zerrendan (mahaiko dokumentazioan izanen da zerrenda horren kopia bat).
2. Egiaztapen hori egin ondoren, prozedurarako behar duen dokumentazioa emanen dio.

Dokumentazio horren barrenean, badaude agiriak nola erabili azaltzen duten jarraibide batzuk, braillez idatziak.

3. Halaber, mahaiaik erakutsiko dio hauteslekuko zein tokitan dagoen dokumentazioa erabiltzeko egokitu den gunea, eta joaten lagunduko.

Boto-emaileak botoa nori eman hautatu ondoren, gainerako hautesleentzat deskribatu den bozketa prozedura berberari jarraituko zaio.

Gogoan hartu:

- Dokumentazioa jaso eta gero, hautesleak, nahi badu, hauteslektik kanpora eraman dezake, eta gero mahaira berriz itzuli botoa ematera.
- Pertsona horiek, hala nahi badute, beren konfiantzako pertsona baten laguntza izan dezakete, bozkatzeko eskubidea erabili ahal izateko.
- Bozkatu eta gero, hobe da hautesleak berarekin eramatea erabili duen dokumentazioa, eman duen botoaren isilpekotasuna bermatzeko.
- Bozkatzeko prozedura berezi hau ezin da ez udal hauteskundeetan ez Nafarroako kontzejuetarakoetan erabili.

**ARRATSALDEKO 8etatik AURRERA
BOZKETAREN ITXIERA ETA BOTOEN ZENBAKETA**



ARRATSALDEKO 8etan.

MAHAIBURUAK OZENKI ESANEN DU BOZKETA ORDUAN AMAITUKO DELA.

Bozketan etenaldirik izan baldin bada, zenbat iraun duen, beste horrenbeste denbora luzatu beharko da bozketa.

Hauteslekuan edo hauteslekuko sarreran oraindik botoa eman ez duen hautesleren bat gelditzen bada, mahaiaik botoa ematen utziko dio, baina beste inori ez.

Jarraian, mahaiburuak POSTA BIDEZ BIDLITAKO BOTO-TXARTELAK hartu eta bakoitza dagokion hautestontzian sartuko du:

Mahaiaik posta bidez jasotzen ahalko ditu boto hauek:

- Posta bidez bozkatzea erabaki duten hautesleen botoak.
- Denbora baterako atzerrian dauden hautesleen botoak.

Kontuan hartu boto-txartelak desberdinak direla. Desberdinak dira, denbora baterako atzerrian dauden hautesleek, udal-hauteskundeetan edo UALEEtako hauteskundeetan, boto-txartelean idatzi behar dutelako hautatu duten/dituzten hautagai-zerrendari/hautagaiei dagokion/dagokien alderdiaren, federazioaren, koalizioaren edo batasunaren izena.

Urrats hauek egin behar dira, GOGOAN HARTUTA BOTO-TXARTELA GORDETZEN DUEN GUTUN-AZALA EZIN DELA IREKI

1. Mahaiburuari bidalitako gutun-azalak banan-banan ireki, eta barrenean errodako inskripzio-ziurtagiria eta posta bidez bozkatzeko gutun-azala edo gutun-azalak daudela egiaztatu.

Errodako inskripzio-ziurtagiria falta bada, gutun-azala suntsitu egin behar da barreneko dokumentazio guztiarekin; izan ere, boto hori ezin da ez balioduntzat ez baliogabetzat hartu, ezta zuritzat ere.

2. Hauteslea mahaiko erroldan inskribaturik dagoela egiaztatu.
3. Dagokion hautestontzian sartu bozkatzeko gutun-azala.
4. Boto-emailearen izena boto-emaileen zerrenda zenbakidunean idatzi. Mahai-kideak arduratuko dira izena idazteaz.

JARRAIAN MAHAIKO KIDEEK ETA IKUSKATZAILEEK BOTOA EMANEN DUTE.

Ikuskatzailereren bat mahaiko erroldan ageri ez bada, boto-emaileen zerrenda zenbakidunean adieraziko da zein atal eta hauteskunde-mahaitan dagoen inskribatua.

MAHAIKIDEEK ETA IKUSKATZAILEEK BOTO-EMAILEEN ZERRENDA ZENBAKIDUNA SINATZEA.

⇒ orri bakoitzaren ertzean, eta

⇒ idatzitako azken izenaren azpi-azpian.

BOTOEN ZENBAKETA.

Behin bozketa amaituz gero, berehala eta etenik egin gabe, botoak zenbatu egingen dira.

Boto-zenbaketa jendaurreko ekitaldia da, eta ezin da gelditu harik eta hauteskunde guztietako boto guztiak zenbatu arte.

Mahaiburuak berehala kanporatuko ditu botoak zenbatzeko trabak edo eragozpenak jartzen dituzten pertsonak.

BOTOAK ZENBATZEKO HURRENKERA

Hurrenkera honi jarraituko zaio:

1. Udal hauteskundeak.
2. Nafarroako kontzejuetarako hauteskundeak (hauteskunde-mahaian kontzeju bat baino gehiagotarako bozketa egiten bada, zenbaketaren hurrenkera haien ordena alfabetikoaren arabera izanen da).
3. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak.

AUTESKUNDE BAKOITZEKO BOTOAK HONELA ZENBATU BEHAR DIRA:

1. Hautestontzia ireki ondoren, mahaiburuak banan-banan gutun-azalak atera, ireki eta ozenki irakurriko ditu boto-txartelak.

Irekitako gutun-azalak gorde egin behar dira, gero berriz zenbatu ahal izateko.

Gutun-azalak eta boto-txartelak ikusterakoan, bertan ager daitezke:

- boto zuriak, eta
- boto baliogabeak

Bi boto mota horiek bereiz zenbatu behar dira, bozketaren emaitza zehazteko.

BOTO ZURIAK dira:

- ⇒ Barrenean boto-txartelik ez duten gutun-azalak.
- ⇒ Hautagairik markaturik ez duten boto-txartelak, 250 biztanle baino gutxiagoko edo kontzeju irekiaren araubideko udalerrietarako hauteskundeetan.
- ⇒ Hautagairik markaturik ez duten boto-txartelak, Nafarroako kontzejuetarako hauteskundeetan.
- ⇒ Hautagai-zerrendaren edo hautagaiaren izena idatzita ez daukaten udal-hauteskundeetako eta Nafarroako kontzejuetarako hauteskundeetako boto-orriak, aldi baterako kanpoan diren hautesleen kasuan.

BOTO BALIOGABEAK dira:

- ⇒ Eredu ofizialekoak ez diren gutun-azal edo boto-txarteletan emandakoak.
- ⇒ Gutun-azalik gabeko boto-txartelak.
- ⇒ Boto-txartel bat baino gehiago (hautagai-zerrenda desberdinetakoak) dituzten gutun-azalak (hautagai-zerrenda berekoak badira, boto baliiodun bat balitz bezala zenbatuko da).
- ⇒ Aldaketaren bat egin zaien gutun-azaletan emandako botoak.
- ⇒ Boto-txartelean honelakorik gertatuz gero: hautagaien izenak aldatu, gehitu, nabarmendu edo ezabatzea; edo haien kokapen ordena aldatzea; edo txartelean bertan zernahi idaztea, edo nahita beste edozein aldaketa mota egitea.
- ⇒ Udal hauteskundeetan, lau hautagai baino gehiagoren izenak markaturik dituzten boto-txartelak, 101 biztanletik 250era bitarteko udalerrietan, edo bi baino gehiagorenak, 100 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan.
- ⇒ Lau hautagai baino gehiagoren izenak markaturik dituzten boto-txartelak, Nafarroan 50 biztanletik gorako kontzejuetarako hauteskundeetan
- ⇒ Kontzeju irekiaren araubideko udalerrietarako hauteskundeetan edo Nafarroan 50 biztanletik beherako kontzejuetarakoetan, hautagai bat baino gehiago markaturik dituzten boto-txartelak.

Hauek ditu eginkizunak: museoaren eta dokumentazio-zentroaren eduki zientifikoari buruz aholkuak ematea, haiek garatzeko jardunbideak proposatzea, eta bildumak eta dokumentu-funtsak handitzeko programarako aholkuak ematea.

2. Mahaiburuak, boto-txartela irakurri ondoren, mahaikide, ikuskatzaile eta ahalordedunei erakutsiko die.

Notarioek, hautagaiek eta hautagai-zerrendetako ordezkariak boto-txartelak eska ditzakete, mahaiko kideen aurrean aztertzeko, edukiari buruz zalantzarik izanez gero.

3. Mahaia egiaztatuko du gutun-azalen kopurua eta boto-emaileen zerrenda zenbakidunean jaso diren boto-emaileen kopurua berdinak direla.

4. Mahaiburuak galdetuko du ea inork protesta edo erreklamaziorik egin nahi duen hauteskunderen bateko boto-zenbaketaren aurka; halakorik baldin bada, mahaia gehiengoz hartuko du hari buruzko erabakiren bat.

5. Boto-txartelak suntsitu egingen dira bertan dagoen jendearen aurrean

Hala ere, EZ DIRA SUNTSITU BEHAR honako boto-txartel hauek:

- Baliogabekotzat jo direnak (boto baliogabeak).
- Erreklamazioren baten xede izan direnak.

Suntsitu gabeko boto-txartelekin hauxe egin behar da:

- Mahaiko kideek sinatu egingen dituzte.
- Bilkura-aktari erantsiko zaizkio (boto-zenbaketa amaitu eta akta egiten deanean).
- Hauteskunde-dokumentazioarekin batera gordeko dira (1. gutun-azalean), eskuliburu honetako beste atal batean zehazten denaren arabera.

BOZKETAREN EMAITZA ADITZERA EMATEA

Mahaiburuak, ozenki irakurriz, bozketaren emaitza aditzera emanen du; zehazki, datu hauek ezagutaraziko ditu:

- ⇒ Erroldatutako hautesleen kopurua (hautesle-erroldako zerrendetan ageri direnak, bai espainiarren zerrendetan, bai, atzerritarren zerrendetan, halakorik bada).

- Lehenengo, Administrazioaren ordezkariari.

Administrazioak izendatutako ordezkari horrek mahaiko boto-zenbaketaren aktaren kopia jasoko du, Gobernuak hauteskunderietako behin-behineko emaitzak ezagutarazi ahal izateko.

- Gero, hautagai-zerrendetako ordezkariari, ikuskatzaileei, ahalordedunei edo hautagaiei, eskatuz gero.

Hautagai-zerrenda bakoitzeko aktaren kopia bakar bat emanen da.

BILKURA-AKTA EGITEA (boto-zenbaketaren aktarekin bezala, hauteskunde bakoitzarentzat akta bat egin beharko da).

1. Bilkura-aktaren inprimakiak bete.

Gogoan hartu: bilkura-akta egitean, 250 biztanle baino gutxiagoko udalerritarako hauteskunderietan, hautagai bakoitzak lortutako boto kopurua adierazi behar da, boto-kopuru handienetik txikienera ordenaturik. Gauza bera Nafarroan 50 biztanletik gorako kontzejuetarako hauteskunderietan.

2. Mahaiburuak, bi mahaikideek eta hautagai-zerrendetako ikuskatzaileek aktak sinatuko dituzte.

3. Hautagai-zerrendetako ordezkariari, ikuskatzaileei, ahalordedunei eta hautagaiei kopiak emanen zaizkie, eskatuz gero.

ELECCIONES LOCALES 2011 / 2011KO TOKI-HAUTESKUNDEAK				
PREMUNIA / UDALERRIA	MUNICIPIO / UDALERRIA	DISTRITO GENERAL / HIRI-EREMUAK	SECCION / ZARZUELA	MESA / MESA
<p>ACTA DE SESION BILKURA-AKTA</p> <p>A las _____ horas del día _____ de _____ de _____ a las _____ horas del día _____ de _____ en _____ (en el _____) se celebró la sesión de la Mesa Electoral, se dio lectura a los _____ y se procedió a la realización de las operaciones atribuidas a esta Mesa Electoral, se procedió a la realización de las operaciones atribuidas a esta Mesa Electoral, se procedió a la realización de las operaciones atribuidas a esta Mesa Electoral.</p>				
<p>1. ASISTENTES / BILKURATZAILEAK</p> <p>1. Mesa bakoitzeko burua / Mesa bakoitzeko burua</p> <p>2. Mesa bakoitzeko kideak / Mesa bakoitzeko kideak</p> <p>3. Deputatuak / Deputatuak</p>		<p>2. BILKURAREN GAIAK / BILKURAREN GAIAK</p> <p>1. Bilkuraren oinarria / Bilkuraren oinarria</p> <p>2. Bilkuraren ordena / Bilkuraren ordena</p> <p>3. Bilkuraren emaitzak / Bilkuraren emaitzak</p>		
<p>ELLA PRESIDENTA / BILKURATZAILEAK</p> <p>1. _____</p> <p>2. _____</p> <p>3. _____</p> <p>4. _____</p> <p>5. _____</p> <p>6. _____</p> <p>7. _____</p> <p>8. _____</p> <p>9. _____</p> <p>10. _____</p> <p>11. _____</p> <p>12. _____</p> <p>13. _____</p> <p>14. _____</p> <p>15. _____</p> <p>16. _____</p> <p>17. _____</p> <p>18. _____</p> <p>19. _____</p> <p>20. _____</p> <p>21. _____</p> <p>22. _____</p> <p>23. _____</p> <p>24. _____</p> <p>25. _____</p> <p>26. _____</p> <p>27. _____</p> <p>28. _____</p> <p>29. _____</p> <p>30. _____</p>		<p>VOTOS DE BIENSAO / BILKURAREN EMAITZAK</p> <p>1. _____</p> <p>2. _____</p> <p>3. _____</p> <p>4. _____</p> <p>5. _____</p> <p>6. _____</p> <p>7. _____</p> <p>8. _____</p> <p>9. _____</p> <p>10. _____</p> <p>11. _____</p> <p>12. _____</p> <p>13. _____</p> <p>14. _____</p> <p>15. _____</p> <p>16. _____</p> <p>17. _____</p> <p>18. _____</p> <p>19. _____</p> <p>20. _____</p> <p>21. _____</p> <p>22. _____</p> <p>23. _____</p> <p>24. _____</p> <p>25. _____</p> <p>26. _____</p> <p>27. _____</p> <p>28. _____</p> <p>29. _____</p> <p>30. _____</p>		

**MAHAIAREN EGINKIZUNEN AMAIERA:
HAUTESKUNDEETAKO DOKUMENTAZIOA PRESTATU ETA AURKEZTEA**

Aurreko lanak amaitu ondoren, hauteskunde bakoitzaren dokumentazioa prestatuko da:

1. HAUTESKUNDEETAKO DOKUMENTAZIOA HIRU GUTUN-AZALETAN BANATZEA (hauteskunde bakoitzarentzat hiru gutun-azaleko sorta bat izanen da).

Gutun-azaletan agiri hauek sartu behar dira:

HAUTESKUNDE BAKOITZEKO 1. GUTUN-AZALA:

- Mahaiaren eraketa-akta.

Gogoan hartu: mahaiaren eraketa-akta agiri bakar bat da egin diren hauteskunde prozesu guztientzat, mahaia bakarra delako. Horregatik, jatorrizko ale bakar bat izanen da, eta hori udal hauteskundeen 1. gutun-azalean sartuko da. Gainerako hauteskunde-prozesuen 1. gutun-azalean Akta horren kopia bat sartuko da.

Mahaiaren eraketa-akta kopia-paperean eginen da eta mahaiko kideek behar adina ale edukiko dituzte gutun-azal guztiak prestatzeko eta kopiak jaso behar dituztenei dagozkienak emateko.

- Zer hauteskunde-prozesu den, haren bilkura-aktaren jatorrizkoa.

- Bilkura-aktan aipatzen diren agiriak:

→ Boto-emileen zerrenda zenbakiduna (jatorrizko ale bakar bat izanen da, eta hori udal hauteskundeen 1. gutun-azalean sartuko da)

→ Boto-txartel baliogabeak edo erreklamazioaren xede izan direnak (zein hauteskundetakoak diren, hari dagokion 1. gutun-azalean sartuko dira).

→ Erabili diren hautesle-eroldako zerrendak (mahaiko dokumentazioan, erabiltako eroldako zerrenden ale bakar bat izanen da, eta hori udal hauteskundeen 1. gutun-azalean sartuko da).

- Aurkeztu diren erroldako ziurtagiriak eta/edo epai judizialak (hautesle-erroldako zerrenden osagarri direnez, haiek sartu diren gutun-azal berean gehitu behar dira).
- Ikuskatzaileen izendapen-agirien kopiak, edo izendapen-agiriak berak, kopiak jaso ez badira (haiek ere udal hauteskundeen 1. gutun-azalean sartuko dira).

HAUTESKUNDE PROZESU BAKOITZEKO 2. ETA 3. GUTUN-AZALAK.

Hauteskunde bakoitzeko 2. eta 3. gutun-azaletan agiri haiek sartuko dira:

- Mahaiaren eraketa-aktaren kopia.
- Bilkura-aktaren kopia.

2. GUTUN-AZALAK ITXI ETA SINATZEA

Mahaiburuak, mahaikideek eta ikuskatzaileek sinatu beharko dituzte, sinadurek azal-hegalak gurutzatzen dituztela.

3. GUTUN-AZALAK AURKEZTEKO PROZEDURA

1. ETA 2. GUTUN-AZALAK

- Mahaiburuak mahaiari dagokion barrutiko lehen auzialdiko epaitegian edo bake-epaitegian aurkeztu behar ditu 1. eta 2. gutun-azalak.

Nahi izanez gero, mahaikide bat eta ikuskatzaileak ere joan daitezke berarekin.

Segurtasun indar eta kidegoek pertsona horiei lagun egingen diete eta, behar izanez gero, bidaia erraztuko diete.

Epaileak dokumentazioa jaso, eta hartu-agiria sinatuko du (hartu-agiria ere mahaiko dokumentazioarekin batera egonen da)

1. ETA 2. GUTUN-AZALAK EPAILEARI EMANDA, AMAITU EGITEN DIRA EPAITEGIRA JOAN DIREN MAHAIKO KIDEEN EGINKIZUNAK

3. GUTUN-AZALA

- Hauteslekuan mahaikideetako batek, gutxienez, gelditu behar du, hauteskunde prozesuetako 3. gutun-azaletako bakoitza posta zerbitzuko langileari eman arte; eta langileak dagokion hartu agiria sinatuko du (hartu-agiria ere mahaiko dokumentazioaren artean egonen da).

3. GUTUN-AZALA POSTA ZERBITZUKO LANGILEARI EMANDA, AMAITU EGITEN DIRA HAUTESLEKUAN GELDITU DEN MAHAIKO KIDEAREN EGINKIZUNAK

HAUTAGAI-ZERRENDETA KO IKUSKATZAILEAK ETA AHALORDEDUNAK

IKUSKATZAILEAK

- Hautagai-zerrenda bakoitzak bi ikuskatzaile izendatzen ahal ditu mahai bakoitze-ko. Ikuskatzaileek baimenduak dauden mahaiari jardun dezakete, ez beste inon.
- Ikuskatzaileek mahaiari laguntzen ahal diete eta haien eztabaidetan parte har dezakete, hitza izanik baina botorik gabe. Parte-hartze horretan, mahaiak baimentzen dituen hautagai-zerrenda bereko ikuskatzaileak bata bestearen orde-za ari daitezke.
- Erreklamazioak eta protestak egin eta ziurtagiriak eskatzen ahalko dituzte.
- Baimenduak dauden mahaiari emanen dute botoa, baldin eta mahaiari da-gekion barrutiko erroldan inskribatuak badaude, nahiz eta mahai horretako erroldan agertu ez. Bestela, bakarrik postaz ematen ahalko dute botoa.

AHALORDEDUNAK

- Hautagai-zerrenda ordezkatzeko dute hauteskundeetako ekitaldi eta jarduke-tetan, hautesleku guztietara sar daitezke, bozketaren eta boto-zenbaketaren nondik norakoa azter dezakete edozein mahaitan, erreklamazio eta protestak egin ditzakete eta ziurtagiriak eskatu ere bai.
- Beren hautagai-zerrendako ikuskatzaileek ez badago, mahaiari haien egin-kizunak bete ditzakete, eta mahaiari eztabaidetan parte hartu, hitza izanik baina boto eskubiderik gabe. Kasu horretan, mahaiari ikuskatzaile karguaz jabetzen den unetik aurrera, pertsona hori ezin izanen da ahalordedun gisa aritu beste mahai batzuetan.
- Beren burua identifikatu behar dute, beren izendapen-agiriak eta Nortasun Agiri Nazionala mahaiari kidei erakutsiz.
- Ezin dute mahaiari botoa eman, bertako erroldan ez badaude.

IKUSKATZAILEAK ETA AHALORDEDUNAK

ELECCIONES MAYO 2011 / 2011ko MAIATZEKO		ELECCIONES MAYO 2011 / 2011ko MAIATZEKO	
Cronograma Electoral Hautaeraren egina Aprobación Oficial NOMBRAMIENTO APODERADO NOMENAMEN TO APODERADO Fecha de la Elección / Hautaeraren eguna		Aprobación Oficial NOMBRAMIENTO APODERADO NOMENAMEN TO APODERADO Fecha de la Elección / Hautaeraren eguna	
DATOS DE LA PERSONA PROPUESTA / PROPOSATUTAKO PERTSONAREN DATUAK			
1º Apellido / 1. abizen		2º Apellido / 2. abizen	
Nombre / Izena		Nº D.N.I. / NAN ZK.	
Profesión / Lanbidea		Estat / Adina	
Domicilio / Hainbidea		Nam. / Xk.	Piso / Solairua
Municipio / Udalerria		C.P. / P.K.	Provincia / Probintzia
DATOS DEL/DE LA REPRESENTANTE / ORDEZKATZAREN DATUAK			
1º Apellido / 1. abizen		2º Apellido / 2. abizen	
Nombre / Izena		Nº D.N.I. / NAN ZK.	
Profesión / Lanbidea		Estat / Adina	
Domicilio / Hainbidea		Nam. / Xk.	Piso / Solairua
Municipio / Udalerria		C.P. / P.K.	Provincia / Probintzia
Formación Política / Alderdi politikoak Partida / Partida			
Para las Elecciones / Hautaeraren eguna			
De acuerdo con el artículo 76.2 de la vigente Ley Orgánica del Régimen Electoral General nombrado Aprobador/a la persona arriba indicada. Hainbidea erabiltzeko Hautaeraren Eguna. Oinarritutako Lege Organikaren 76.2 artikuluan ber-rik, ahalordedun izendatzen dute goren adierazitako pertsona.			
Lugar y Fecha / Tokia eta eguna			
EL/LA REPRESENTANTE / ORDEZKARIA		EL/LA SECRETARIA DE LA JUNTA ELECTORAL / HAUTESKUNDE BATZORDEKO IDAZKARIA	
Si se Declaración de la Junta Electoral (eko Hautaeraren Batzordeko Idazkaria)		Si se DTP Jaunitasuna	
No. de Nombreamiento Aprobado / Aprobazio / N. de. - Ahalordedunaren izendapena - izendapena		No. de Nombreamiento Aprobado / Aprobazio / N. de. - Ahalordedunaren izendapena - izendapena	

Ikuskatzaileek eta ahalordedunek ordezkatzeko dute hauteskunde politikoaren iku-rrak edo eranskailuak eraman ditzakete, baina hautagai-zerrenda horretako ikuskatzaile edo ahalordedun direla identifikatzeko bakarrik, hori ez baita hauteskunde-propagandatzat hartuko.

ORDENA PUBLIKOA

Hauteskunde egunean, mahaiburuak bere gain du hauteslekuaren barrenean eta inguruetan ordena publikoari buruzko arauak betetzen direla begiratzeko ardura, hautesleek boto-askatasuna erabil dezaketela eta legea betetzen dela ziurtatzeko.

1. Mahaiburuaren ahalmenak.

- Hauteslekuaren barrenean, ordena publikoari buruzko arauak betearazteko aginte osoa dauka.
- Horretarako, hauteslekuak babesteko ardura duten segurtasun indar eta kidegoei esku hartzeko eskatzen ahalko die, eta haien eskatzen zaien laguntza emanen dute.

2. Ordena publikoari buruzko arauak.

- Hauteslekuko sarrerak beti egon behar du trabarik gabe eta hauteslekura sartzeko eskubidea duten pertsona guztiak sartu ahal izateko moduan.

Pertsona hauek bakarrik dute hauteslekuetara sartzeko eskubidea:

- Hautesleak, eta haien laguntzaileak, laguntzarik behar badute.
- Hautagai-zerrendetako ordezkariak.
- Hautagaiak.
- Ahalordedunak eta ikuskatzaileak.
- Notarioak.
- Mahaiburuak deitutako agintaritzaren agenteak.
- Hauteskunde-batzordeetako kideak.
- Instrukzioko epaileak eta haien eskuordeak.
- Administrazioaren ordezkariak.

Beste edozeinek mahaiburuaren baimena beharko du hauteslekuan egoteko

- Ez da utzi behar hauteslekuan edo inguruetan jendea pilatzen edo taldeak sortzen, hauteslekura sartzeko traba egin badezakete.
- Hauteslekuaren inguruetan ez da onartu behar boto-eskubidea askatasunez erabiltzeko oztopo izan daitekeen inor egotea. Mahaiburuak egokiak iruditzen zaizkion neurri guztiak hartu behar ditu, horrelakorik ez gertatzeko.
- Inor ezin da hauteslekuan sartu armekin edo arma gisa erabil daitezkeen bestelako tresnekin, hauteslekua babestu behar duten agenteak izan ezik, mahaiburuak hala eskatuz gero.
- Ez hauteslekuan ez inguruetan ezin da hauteskunde-propagandarik egin.

3. Gorabeheren berri jasotzea bilkura-aktan.

Hauteslekuko ordena hautsi duten gorabeherak bilkura-aktan jasoko dira, eta horien eragileen izen-abizenak jarriko dira.